

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zeure ingurua aprobeztatuta:

- ✓ Zeuk ere pentsatzen al duzu dena txukun eta ondo antolatuta izateak aparteko balioa daukela eta bizimodua errazago eramaten laguntzen duela? Bada, egiaztatu nahi dugu hala dela! **Graba ezazu** bideo labur bat telefonoarekin, eta erakutsi nola daukazu antolatuta eta ordenatuta, txukun-txukun, armairua, edo tiraderak, edo etxe osoa... **Eraman** ikasgelara, eta **erakutsi** ikaskideei.
- ✓ Badira liburuak tamainaren arabera eta arropa kolorearen arabera ordenatzen dituztenak, koadro oker bat ikusten dutenean zorabiatzen direnak, edo norbaitek bere gauzak lekuz aldatzen dituztenean sutan jartzen direnak. Hau da, badira ordenarekiko nolabaiteko "mania" dutenak. Guztiok dakigu, gutxi gorabehera, zer den mania, baina *mania* hitzak esangura mordoa biltzen du. Zer ote dira, zehazki, maniak? Zelan eragiten digute? **Irakurri Gaztezulo** aldizkariako *Maniak, zein da zurea?* izeneko [artikulu hau](#). Ondoren, **idatzi** testu bat, zure iritzia emateko eta, nola ez, azaltzeko zein den zure "maniatxo hori". Azkenik, **igo** euskaltegiaren blogera.
- ✓ Etxea, lan egiteko lekua... Leku horietan guztietan ez ezik, leku "ezagun" batean ere ematen duzu eguneko ordu asko, ezta? Zein? Bai, euskaltegia!!! Pentsatu nola gustatuko litzaizukeen egotea apainduta edo txukunduta: euskaltegiko sarrera, bulegoa, komuna, ikasgela... **Idatzi** testu labur bat zure proposamenaren berri emateko, eta utzi euskaltegiko iradokizun-buzoian.

Internet eta hedabideak aprobeztatuta:

- ✓ **Ikusi Txukuntzen ikasten** izeneko [bideo honetan](#) nola tolestu behar diren, adituen iritziz, galtzerdiak? Zer iruditu zaizu? Zeuk ere horrela tolesten dituzu, ala beste metodoen bat erabiltzen duzu? Ikusi ondoren, **grabatu** bideo labur bat, ahoz azaltzeko, modu praktikoa batez, zuk nola tolesten dituzun.
- ✓ Trukea aukera interesgarria da etxean behar ez ditugun gauzak berrerabili edo dirua aurrezteko. **Sartu** IKASBIL atarian, eta **egin** honako jarduera hau: [Trukea egingo al dugu?](#) Sekuentzia honetan, zerbait trukatzeari buruz arituko zara eta sekuentziaren amaieran landutakoa praktikan jarriko duzu.
- ✓ "Zure etxeak zenbat metro karratu ditu guztira? Eta, horietatik, zenbat dira (terraza edo balkoia baduzu, horren erdia hartu aintzat) eremu bizigarri? Azken horietatik hiru laurdenak inguru beteta badituzu, ziurrenik Metatze Konpultsiboaren Sindromea izango duzu...". Horrela hasten da testu hau: [Etxea biltegi jasanezin bihurtzen denean](#). Irakurri eta komentatu ikaskide batekin.
- ✓ Kontzeptu bera al dira *antolaketa* eta *ordena*? Zu zer zara: antolatua ala ordenatua? **Irakurri Antolaketa eta ordena, berdinak al dira?** izeneko [testu hau](#), eta **grabatu** zure iritzia. Ondoren, **igo** euskaltegiaren blogera.
- ✓ Lan-unitate osoan zehar, behin eta berriro irakurri eta entzungo duzu zer ona den ordena eta zenbat onura ekartzen digun txukuntasunak. Badira, ordea, filosofia horren atzean "gezur handi bat" dagoela uste dutenak. **Irakurri**, bestela, Irati Marañonek ALEA aldizkarian idatzitako [Zorion](#) izeneko iritzi-artikulu laburra. Behin irakurrita, **idatzi** testu labur bat, horren inguruko zeure iritzia azaltzeko, eta **igo** euskaltegiaren blogera.